

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Sarea

Lurzoruaren Munduko Eguna

Esperientzia osoa euskaraz

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Lurzorua

Zure ikasleekin esperientzia berezi bat antolatu nahi duzu Lurzoruaren Munduko Egunerako?

Gure saretik, *streaming* bidezko ordu beteko ekimen digital hau proposatzen dizuegu.

Online ekintza parte-hartzaile honen bidez, lurzoruak bizitzarako funtsezko baliabide gisa duen garrantzia, ekosistemetan duen papera, kutsadura-arazo nagusiak eta lurzorua zaintzeko eta kontserbatzeko egin ditzakegun ekintzak landuko ditugu.

Saioan, zuen ikasleek zuzenean ikasi, hausnartu eta interakzioan aritzeko aukera izango dute. Iraunkortasunaren inguruan sentsibilizazioa eta pentsamendu kritikoa sustatzeko diseinatutako dinamika digitalen bidez.